



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 19a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00061. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00062. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00063. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00064. Galdera, JPI Consultores enpresak uko egiteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00065. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00067. Galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutako irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00068. Galdera, oinarritzko osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00069. Galdera, Entertainment Circus Troup SLri 2024an emandako babesletzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00070. Galdera, Frankismoaren Anatomia kongresuari 2024an emandako babesletzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00071. Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00072. Galdera, Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko ireki zitzaion espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- 11-25/PES-00073. Galdera, Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00074. Galdera, Europako NG funtsekin finantzaturako ID005 jarduketa 2024ko azaroan eta abenduan murriztu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00075. Galdera, Karlismoaren Museoan Jurramendiko 1976ko gertaerei emandako tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00076. Galdera, Ostalaritza eta Turismoa Elkarteari turismoa susta dezan 2020tik aitzina emandako laguntza ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00061. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Lurralde Kohesiorako Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia- eta meatze-intereseko obrak, 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lurralde Kohesiorako Departamentuak espeleologiari dagokionez hidrologia- eta meatze-intereseko obrak zeinekin kontratatzen dituen jakiteko (11-25/PES-00061). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuan ez dago kontraturik espeleologiari dagokionez hidrologia- eta meatze-intereseko lanak egiteko enpresa batekin ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00062. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, hidrologia-intereseko, faunaren eta biologiaren arloko obrak, 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-

25/PES-00062 galdera egin du idatziz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak espeleologiari dagokionez hidrologia- eta meatze-intereseko obrak zeinekin kontratatzen dituen jakiteko. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Espeleologia ez da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuaren eskumena. Alabaina, Urbasa eta Andia Parke Naturala kudeatzea bada haren eskumena. Abeltzaintzako eta basoetako balioez gain, erabilera soziala gero eta handiagoa da, eta horrek eragin zuen 201/2021 Ebazpen bidez onestea babes-tutako naturagunerako erabilera publikoko plana.

Plana garatzeko zenbait azterlan egin ziren, eta 2021. urtean haitzuloen eta amildegien erabilerarekin lotutako bi enkargatu ziren. Zehazki, honako hauek enkargatu ziren:

Azterlana	Enpresa	Zenbatekoa
Laguntza teknikoa Noriturri, Akuandi eta Cristinos leizeetako ingurumen balioak eta balio geologikoak aztertzeke	Fran Sanz Morales (33.444.179V)	9.801,00 €
Laguntza teknikoa Noriturri, Akuandi eta Cristinos leizeetako ondare arkeologikoaren balioa aztertzeke	RUNA E31873664	3.834,91 €

Nolanahi ere, aipatutako leizeen natura balioak ezagutzeko azterlanak dira, aukera ematen dutenak zehazteko leize horietan erabilera publiko ordenatua egoten ahal den ala ez, baina ez dira azterlan espezifikokoak hidrologiari, faunari nahiz biologiari buruz.

Beste baso eremu batzuetan ez da inolako azterlanik enkargatu Miguel Bujanda Cirauqui jaunak eskatutako ezaugarrien inguruan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00063. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer enpresarekin kontratatzen dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak, 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00063 galdera idatzia egin du honako hau jakiteko: "Nafarroako Gobernuaren Vianako

Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak zer enpresarekin kontratatzen ditu, espeleologiari dagokionez, arkeologia- nahiz paleontologia-intereseko obrak?". Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Galderari erantzuteko dokumentazioa eranskinean dago jasota.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

(Oharra: Aipatutako artxiboa foru parlamentari guztien eskura dago Agorako Kudeaketa Parlamentarioa atalean).

11-25/PES-00064. Galdera, JPI Consultores enpresak uko egiteko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak JPI Consultores enpresak uko egiteko arrazoiei buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00064 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko JPI Consultores enpresak zergatik egin dion uko Klima-aldaketaren Nafarroako Herritar-ba-

tzarren talde bideratzaile izaten jarraitzeari. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Arrazoi horiek jasota daude Klima-aldaketaren Nafar Herritar-batzarraren koordinazio lanei uko egiteko dokumentuan. Enpresak dokumentu hori bidali zuen Klima Aldaketaren Nafarroako Bulegora eta hemen jaso dira:

Erabaki hau hartu dugu ekimena gauzatzeko eta esleitutako baliabideak optimizatzeko guretzat garrantzitsuak diren zenbait faktorerengatik.

Jakin badakizue, gure taldeak arrakastaz gauzatu du Batzarra eratzeko zeregina, eta bete egin ditu laguntza teknikoak emateko proposamenak ezarri genituen konpromisoak. Proposamen hori Departamentuak eta Klima Aldaketaren Bulegoak baliozkotu zuten 2024. urteko ekainean.

Hilabeteotan ziurtatu da prozesua sendoa dela, eta horren adierazgarri da Arloak egindako lanarekin duen gogobetetasuna.

Alabaina, identifikatu dugu koordinazio fasearen muntak eta norainokoak hasiera batean aurreikusitakoaz bestelako ikuspegia behar dutela.

Bereziki, honako faktore hauengatik erabaki dugu koordinazioari uko egitea:

1. Lan zama berriz konfiguratzeko: Batzarra koordinatzeko faseak egitura operatibo handiagoa eta konplexuagoa behar du hasiera batean aurreikusitakoaren aldean, bereziki talde bideratzaileak egin behar duen ikuskapenagatik eta prozesuaren logistikagatik.

2. Erreferentzia eredu: Aurreko esperientzietan, hala nola Espainiako Batzarrean, bi talde bereiziko eredu bat inplementatu da: talde bat era-

tzeko eta bestea koordinatzeko. Etorkizuneko prozesuetarako, uste dugu eskema hori kopiatzeak efizientzia handiagoa izaten laguntzen ahal duela, baita ere espezializazio handiagoa prozesuaren fase bakoitzean.

3. Gure ekarpenaren balio bereizgarria: Gure iritziz, Batzarra eratzean eta sendotzean dago gure balio gehigarri nagusia, koordinazio operatibo egitean baino, eta, horrenbestez, bigarren fase honetan jarraitzeak ez luke ekarriko lehenengoan lortutako eragin positibo berbera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 10an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00065. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako Next Generation SEM funtsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2025eko otsailaren 18ko 202501459 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Europako Next Generation SEM funtsei buruzko askotariko informazioa eskatzeko (11-25/PES-00065). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Nafarroako Gobernuaren 2024rako aurrekontu-gastuetan Europako Next Generation SEM funtsetan aurreikusitako zenbatekoaren zer zati geratu da bete gabe eta gehitzen zaie 2025eko aurrekon-

tu-gastuei, zeinen balioespena 114.099.174 €-koa baita?

SEM 2024ko behin betiko gastu aurrekontua 353,7 milioi eurokoa zen eta 148,5 milioi euro gastatu dira. Beraz, ez dira erabili (obligazioak) 205,2 milioi euro. Kreditu-gerakin horiek honela sailkatzen dira: 120,8 milioi hitzemandak, 34,9 milioi baimenduta hitzeman barik eta 49,5 milioi erabilgarri. 2025eko aurrekontuari gehituko zaizkio, kreditu-gerakinak txertatzearen ondorioz egi-tzen diren aurrekontuko aldaketan arabera.

2.- Zein da, hortaz, Nafarroari esleitu zaizkion Europako Next Generation SEM funtsetatik betetzeko gelditzen den zenbatekoa, guztira?

Behin betiko datuak ez ditugu, baina 2024ra arte gastu obligazioak egikaritu dira 315,8 milioi eurotan. Hala ere, baliteke kopurua 325 milioira iristea behin betiko datuak lortzean.

Gobernu Irekiaren webgunean eskuragarri daude kontabilizatutako datuen arabera, 616,8 milioi euroko finantzaketa dago aurreikusita. 315,8 milioi euro egikaritu badira (gardentasunaren webgunean bertan adierazten denez), ondorioztatu behar da 301 milioi euroko aldea dagoela.

3.- Zer departamentutan daude fisikoki kokaturik Europako Next Generation SEM funtsak koordinatzeko lana egiteko sartu ziren 6 pertsonak? Sei kideak Nafarroako Gobernuaren Departamentu guztietan daude. Nahiz eta egute-

gia premien arabera egokitu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eraikinean egoten dira, eta, horrez gainera, asteen bi egunetan bakoitza bi departamentutan izaten da; beraz, guztietara joaten dira eta bertan izaten dira (fisikoki).

Nafarroako Gobernuaren departamentuak	Laguntza fisikoa
Lehendakaritzako eta Berdintasuneko Departamentua.	BAI
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	BAI
Lurralde Kohesiorako Departamentua	BAI
Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua	BAI
Hezkuntza Departamentua	BAI
Osasun Departamentua	BAI
Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua.	BAI
Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua	BAI
Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua	BAI
Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua	BAI
Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua	BAI
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua.	BAI
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	BAI

4.- Zer prozeduraren bidez kontratatu dira pertsona horiek eta zenbat denborarako kontratua egin zaie?

Ekonomiako profila duten langileentzako dau denaldi baterako kontratazio zerrenda ofizialak erabili dira. Kontratuak azkenduko dira kontratazioak xedetzat duen zeregin berezi ezohikoa amaitzen den unean eta, edozelan ere, hiru urtetan gehienez.

5.- Zenbat pertsonak lan egiten dute, guztira, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako Europako Next Generation SEM funtsak koordinatzeko eta betetzeko?

ITNei laguntzeko espezifikoki kontratatutako sei pertsonen gain beste bost daude: Bi pertsona

SEM funtsen kudeaketa ekonomikorako eta kontabilitaterako eta beste hiru kudeaketako prozedurarako. Beraz, hamaika pertsona dira. Horiei gaineratu behar zaie SEEPko Zerbitzu Zuzendaritza eta Kontabilitate Nazionala (zereginak dituzte SEEPaz harago) eta Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusia bera (idem).

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00067. Galdera, terrorismoa dela-eta kondenatutako irakasleei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak terrorismoa dela-eta kondenatutako irakasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES -00067 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Kontseilari honek 2025eko otsailaren 18an Parlamentuko Hezkuntza Batzordean jakinarazi zuenez, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretu bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuak Nafarroako Funtzio Publikora sartzeko betekizun gisa ezartzen du honako hau:

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo baztertua ez izatea eta Administrazio Publiko bateko zerbitzutik berezia ez izatea.

Betekizun berbera exijitzen da aldi baterako kontratazioko zerrendetara sartzeko eta kasuko kontratuak sinatzeko.

Hezkuntza Departamentuak ez du jakin Nafarroako ikastetxe publikoren batean irakasle gisa

kontratutako pertsona bati ere kontratua egin zaionik Nafarroako Gobernuak jakinda ez zuela betekizun hori betetzen.

Era berean, Departamentu honek ez du jakin 2015. urtean Zigor Kodea aldatu zenetik irakaslearen lanbidea gauzatzeko desgaikuntza berezia jasota dagoen epai baten berri eman zaionik administrazio honi.

Ez da jakin, halaber, pertsona bat ere kontratua izan denik terrorismoagatik kondenatua izan dena; izan ere, kondenatzeko epaian ez bada inposatzen irakaslearen lanbidea gauzatzeko edo funtzio publikoak egiteko desgaikuntza osagarria, informazio hori ez zaio bidaltzen administrazio honi. Beraz, ezin dugu izenik eman, eskatu duzunarekin bat, ofizialki ez baitaude jasota.

Edozelan ere, galdera egin duzunez gero, gogorazten dizut otsailaren 18an Hezkuntza Batzordean izandako agerraldian kontseilari honek Nafarroako Parlamentuaren Bilkuren Egunkaria aipatu zuela, Iribas jaunak Hezkuntza kontseilari zenean egindako zenbait aipuri eta Legebiltzarreko jardueraren akta ofizialei buruz, gai horri berari erantzunez; horrez gainera, 2013. eta 2014. urteetan Guardia Zibilaren txosten ofizial baten edukia jaso zuten komunikabideei buruzko hainbat aipamen egin zituen. Nafarroako hezkuntza publikoan aurrekariak zituzten irakasleen presentziari buruzkoa zen gaia, zehazki D ereduan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00068. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak oinarrizko osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "Osasun Departamentuak ba al du Oinarrizko Osasun-laguntzako mediku-absentziak produktibitatearen bidez betetzean irregulartasunak egin izanaren frogarik? Zer egin da horri dagokionez?" (11-25/PES-00068). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Kontuan hartu behar da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zenbait ebazpenen bidez arautu duela salbuespenezko jarduera Oinarrizko Osasun-laguntzan, baita ere kasuko ordainsariak edozein arrazoiengatik falta diren profesionalak kontratazio bidez ordezkatu ezin diren kasuetarako, horrela aukera emateko haien kuotako pazienteak zentro horretako beste profesional batzuek artatu di-

tzaten (azkena 1635/2019 Ebazpena izan da, abenduaren 31koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez ezartzen baitira Oinarrizko Osasun-laguntzaren eremuan ezohiko produktibitate-osagarriaren modulua eta baldintzak. Ondoren 670E/2020 Ebazpenak, uztailaren 30ekoak, aldatu zuen, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin). Hortaz, ulertzen dugu "mediku absentziak betetze" horrek erreferentzia egiten diola ebazpen horretan jasotako aukera honi: produktibitateko moduluak kobratzea gutxienez ere hiru kontsulta presentzial eta hiru ez presentzial dituen agenda bat sortzen bada, edo baliokidea ebazpenean kontsulta mota bakoitzerako esleitutako denboren arabera, falta den profesionalaren kuotako pazienteei arreta emateko.

Ez dugu jakin gorabeherarik egon denik; alabaina, lan egiten ari gara 10/2021 Instrukzioan aldaketa bat egiteko. Bertan zehazten dira honako hauek: arauzko erregulazioa; pazienteei arreta emateko modulua egiteagatik produktibitate-osagarria kobratzeko egoera eta egiten ahal duten subjektuak; pazienteei arreta emateko modulu bakoitzerako agenda beharrezkoa; produktibitate motak; moduluen sorrera eta kontrola; ordainsaria; indarraldia eta instrukzioaren hartzaileak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00069. Galdera, Entertainment Circus Troup SLri 2024an emandako babesletzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Entertainment Circus Troup SLri 2024an emandako babesletzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00069); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak Entertainment Circus Group Troup SL babestu zuen 2024an, 18.150 euroekin. Zertan zeutzan babesletza hori?

Zein izan zen babestutako ekintzaren kostu osoa?

2024ko azaroan babesletza-proposamen bat jaso zen, eta, beste batzuen artean, hauxe eskaintzen zen: azaroaren 26an Nafarroa Arena pabilioian antolatutako "Mundo Mágico de los Reyes Magos" delakoaren babesle ofizialak izateko aukera. Babesletza ofizial horren kostua 15.000 eurotan zegoen baloratuta, BEZik gabe; hau da, 18.150 euro BEZa barne.

Proposamenean honako ezaugarri hauek eskaintzen ziren:

Markaren presentzia

- Babesleen zona eskusiborako sarbidea.
- Errege pajeak eta babesleen ikuskizun eskusiboak.
- Bermuta / mokadu eskusiboak.
- Enpresa logotipoa kartel ofizialean.
- Enpresa logotipoa dossier ofizialean.
- Markaren presentzia kubo digitaletan.
- Markaren presentzia sarreretako pantailetan.

- Enpresa logotipoa ekitaldiaren eremu nagusian ("oparien multzoa").

- Markaren presentzia ekitaldian ikusgarritasun elementuekin (roll-up, totem...)

- Markaren standa jartzeko aukera.

- Pentsan agertzea ekitaldia zabaltzeko ekintzetan.

- Agertzea euskarri digitaletan, ekitaldia zabaltzeko kanpainetan.

- Sare sozialetako aipamena eta presentzia.

- Webgunean agertzea ekitaldia dela-eta.

2024ko abenduaren 16an, babesletzarako kontratua sinatu zen, eranskinean zerrendatutako prestazio hauekin:

- Marka agertzea ekitaldiaren kartel ofizialaren behealdean, babesle gisa era "Babesle" izenburuaren azpian, beste lau markaren logotipoekin batera. Logotipoa 2. postuan kokatuko da. Logotipoa negatiboan agertzea.

- Marka agertzea ekitaldiaren apaingarrietan, honako elementu hauekin:

- Nafarroa Markaren hiru kubo, sarreran kokatuak, jateko eremuan eta azokaren eremuan.

- Totem bertikal bat, ekitaldira sartzeko atean kokatua (Nafarroa Arena).

- Nafarroa Markaren bandera bi, Nafarroa Arenaren erdiko pasabidean kokatuak (albo bakoitzean bana).

- Ekitaldian zehar kubo digitaletan eta dauden euskarri digitaletan agertzea.

- Ekitaldiaren prentsa oharretan eta zabalkundeetan aipamena izatea.

- Beste babesle batzuekin batera aipatua izatea testuan zehar babesle gisa, ez modu eskusiboan, ekitaldiaren berri emateko oharrean dagoen kasuetan.

- Sare sozialetako kanpaina (Instagram eta Facebook), Nafarroan, 35 eta 55 urte artekoentzako.

- Datak: azaroaren 25etik abenduaren 29ra.

- Piezak: kartela hainbat formatutan, logotipoak behealdean, eta bideo laburrak, amaieran logotipoak dituztenak.

- Baluarteko leihatilak.

- Noiz: Azaroaren 25etik abenduaren 29ra

- Piezak: kartela, formatura egokitua, logotipoekin.

- NICDOren leihatila Morean.

- Noiz: Azaroaren 25etik abenduaren 29ra

- Piezak: kartela, formatura egokitua, logotipoekin.

- Lankidetzaren Diario de Navarrarekin:

- Iragarriak euskarri fisikoan: Bost iragarri. Azaroak 24, abenduak 10, 13, 19 eta 23. Piezak: kartela logotipoekin.

- Bi albiste babestu eta albistea home orrian zirkulatzea bi egunez. Azaroak 25 eta abenduak 11.

- Bannerra home orrian. Azaroaren 25etik abenduaren 23ra

- Piezak: kartela hainbat formatutan logotipoekin.

- 4.000 flyer banatzea abenduaren 21etik 28ra bitarte (abenduak 24e eta 25 izan ezik) Taxoaren, Izotza pista, Gaztelu plaza eta Morea kanpoalde-

an. Morearen kasuan, "pajeek" banatuko dituzte eta Circus entitateak kudeatuko du ekintza hori.

- Pieza: flyer egokitua, behealdean logotipoak dituena, orrialde bat gazteleraz eta bestea euskaraz.

- A2 tamainako kartelak itsastea (logotipodunak) hiriko puntu garrantzitsuetan. 400 ale. Abenduak 20.

- Hiru hiri-autobus errotilatzea eta zirkulatzea.

- Piezak: Alboak eta atzealdeak osorik errotilatzea. Logotipoak pieza guztietan.

- Noiz: Abenduaren 9tik 29ra (hiru aste).

- Justifikazioa: Deskribapen txostena, jardueren memoria eta memoria ekonomikoa barne, Nafarpres Multimedia kultur elkarteak 2025eko urtarrilaren 28an aurkeztua.

2024ko abenduaren 30ean, enpresak babes horren justifikazioak aurkeztu zituen. Kontratuaren eranskinean agertzen diren prestazioak betetzen direla egiaztatu zen, eta 18.150 euro ordaindu ziren, BEZa barne.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 21ean

Lehendakariaren eta Berdintasuneko kontseilariaren: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00070. Galdera, Frankismoaren Anatomia kongresuari 2024an emandako babesletzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Frankismoaren Anatomia kongresuari 2024an emandako babesletzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-70 galdera egin du. Hona bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

•Nafarroako Gobernuak Frankismoaren Anatomia kongresua babestu zuen. Zertan zeutzan babesletza hori?

Nafarroako Gobernua, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren bidez, Memoria Demokratikoaren Estatuko Idazkaritzarekin eta Kataluniako Generalitatearekin batera, Toulouseko Unibertsitatearekin lankidetzan aritu zen "Frankismoaren Anatomia" Kongresua (2024ko martxoaren 22-24) eta Erakusketa (2024ko apirilaren 4tik irailaren 22ra) antolatzeko. Toulouseko Departamentu Kontseiluan eta Erresistentziaren eta Deportazioaren Departamentu Museoan izan ziren, hurrenez hurren.

•Zein izan zen babestutako ekintzaren kostu osoa?

Frankismoaren Anatomia Kongresua eta Erakusketa (Toulouse). Aurrekontua: 290.000 euro, honelaxe banatuta:

– Kongresua, 45.000 euro.

– Erakusketa: 211.000 euro.

– Dibulgazio jarduerak erakusketaren inguruan: 10.000 euro *L'histoire* aldizkariaren ale berezia: 20.000 euro (30 000 ordainduta).

– Zabalkundea sareen bidez: 4.000 euro.

• Babesletza horrek zer onura izan du? Frankismoaren Anatomia Kongresuaren eta Erakusketaren eragina:

Bisitak erakusketara: 18.000 pertsona.

Zabalkunde nazionaleko elementuak (Frantzia)

– artikulua bat *Le Monde* egunkarian: 1.000.000 irakurle

– artikulua bat *Mediapart* agerkarian: 200.000 irakurle

– ordubeteko programa berezia France Inter delakoan, podcast batekin: 1.500.000 entzule

– Instagrameko reels bideo laburrak: 250.000 ikustaldi baino gehiago

– *L'histoire* aldizkariaren ale berezia: 30.000 abonatu

– kartelak Toulouseko hainbat autobusetan hila-betetan zehar, Nafarroako Gobernuaren nahiz Nafarroako Memoriaren Institutuaren logotipoarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 15. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-25/PES-00071. Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2025eko urtarrilaren 15ean emandako epaiaren ondorioei buruz buruz (11-25/PES-00071). Hona Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak aurkeztuko al du kasazio-errekurtsorik Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiaren aurka, zeinaren bidez baliogabetu baitzen Nafarroako Gobernuaren 2023ko urtarrilaren 18ko erabakia, zeinaren bidez ezetsi egin baitzen Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak irailaren 15ean emandako 515/2023 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtoa? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zergatik aurkeztuko du errekurtoa?

Nafarroako Gobernuaren Zerbitzu Juridikoek epaiaren azterketa xehatua egin dute eta ez da aipatutako errekurtoa jarriko, galarazi gabe beste interesdun batek jartzea.

2. Kasazio-errekurtsorik aurkezten ez delako epaia irmo bilakatzen baldin bada, zer ondorio izanen du epai horrek?

Behin irmo bihurtu ondoren eta bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin, alderdiak beharturik daude epaia bere horretan eta berak dioen moduan betetzera; bestela, 103. arti-

kulu beraren 4. apartatuan xedatzen denez, zuzenbidean erabat deusez izango dira epaietako erabakien kontrako diren eta erabakiok betetzea saihestea xede duten egintza eta xedapenak.

3. Ondorioetako bat izan liteke aldatu egin beharko litzatekeela Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak martxoaren 20an emandako 57/2023 Ebazpena, zeinaren bidez amaiera eman zitzaion Nafarroako toki-entitateetako idazkarien lanpostu hutsak funtzionario gaituen artean merezimendu-lehiaketa eginez betetzeko prozedurari?

Nafarroako Gobernuaren Zerbitzu Juridikoak aztertzen ari dira zelan betearaziko eta beteko duten aipatutako epaia; horrek berekin ekartzen ahal du, kasua bada, epaia betearaziz, 57/2023 Ebazpena aldatzea, martxoaren 20koa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez amaiera eman zitzaion Nafarroako toki-entitateetako idazkarien lanpostu hutsak funtzionario gaituen artean merezimendu-lehiaketa eginez betetzeko prozedurari, Silvia González Echarri andreari adjudikatze aldera Burlatako Udaleko idazkari plaza, Atarrabiako Udaleko idazkariarena beharrean.

4. Administrazioarekiko auzien prozedurako errekurtsogileak Burlatako lanpostu hutsa esleitzekion eskatu zuenetik aldatu beharko al litzateke –horretarako merezimenduak izan bazituelako– lekualdaketen administrazio-prozedura? Nafarroako Gobernuaren Zerbitzu Juridikoak aztertzen ari dira zelan betearaziko eta beteko duten aipatutako epaia, kontuan hartuta ezen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak hauxe ezartzen duela: “egintza bat deusez edo deuseztagarri izateak ez dakar prozedurako ondorengoak ere deusez edo deuseztagarri izatea, aurrekoarekin zerikusirik ez badute”. Kasu honetan, epaia betearaziz Silvia González Echarri andreari adjudikatzea Burlatako Udalen idazkari plaza ez du galarazten edo aldatzen plaza hutsak adjudikatu izana lekualdatze lehiaketako deialdian gaitutako gainerako funtzionarioei.

5. Epaia irmo bilakatzen baldin bada, Gobernuak 2025eko urtarrilaren 8ko erabakiaren edukia mantenduko al du maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatze aldera Nafarroako Alderdi

Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako foru-lege proposamenari dagokionez?

Nafarroako Gobernuak eutsi egiten dio 2025eko urtarrilaren 8ko Erabakiaren edukiari dagokionez; hala ere, 16/2022 Foru Legean jasotako arau eragozpena indargabetzen bada, Idazkaritzako kolektiboaren jabetza-hartzeak, txanda librean, epaiaren betearazpenarekin bateragarria den moduan egin beharko dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00072. Galdera, Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko ireki zitzaion espedienteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko ireki zitzaion espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko hasitako espedienteari buruz (1 I25/PES-00072). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1.- Lurralde Kohesiorako Departamentuak ziurtasunez al daki Ondare Historikoaren Zerbitzuko Erregistro, Ondasun Higigarri eta Arkeologia Atalak baimenik eman ote duen ukitutako lurzatian esku-hartze arkeologiko bat egin dadin, dagokion aztarnategi arkeologikoaren egungo egoera ezagutzeko eta lurpean gorde daitezkeen balizko hondakinak zehazteko?

Departamentu honek badaki 293/2023 Ebazpena eman zela, abenduaren 5ekoa, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiak emana, baimena eman zuena presako esku-har-

tze arkeologiko bat egiteko Kasedan "El Planaz" izeneko aztarnategi arkeologikoko afektazio posibleak ebaluatzeko.

Ebazpenean jasotzen denez, "Ondare Historikoaren Zerbitzuko Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak haxe adierazten du ildo horretan: "Kasedako Udalak Barzuzua SL enpresari agindu dio ondare eraginaren azterlan bat egin dezala Kasedako 1. poligonoko 9. katastro partzelan. Nafarroako Inbentario Arkeologikoan jasota dago partzela horretan El Planaz-La Tejería aztarnategi arkeologikoa dagoela (kod.: 09310690049), erromatarren garaiko egonleku bat, 2. graduz kalifikatua".

Departamentu honek badaki esku-hartze arkeologikoa egin dela. Badakigu, halaber, lanen enpresa esleipen-hartzailea kamaierako txostena aurkeztu diola Ondare Historikoaren Zerbitzuko Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalari, bat etorritz 293/2023 Ebazpenaren 4. puntuarekin.

2.- Zertan da Kasedako Udalari ireki zitzaion hirigintzako legezketasuna berrezartzeko espediente? Gogorazi behar da hirigintzako legezketasuna berrezartzeko espediente bertan behe-utzi zela, Ondare Historikoaren Zerbitzuak esku-hartze arkeologikoaren emaitza baloratu artean, 293/2023 Ebazpenaren azalpen zatia 5. puntuan xedatzen denarekin bat etorritz.

3.- Hertsapen isunen ezarpena berriz aktibatu al da ala geldirik dago 2023ko urtarrilaren 16an eta maiatzaren 30ean ezarritakoak eta gero?

Gogorarazi behar da betearazte subsidiarioaren esparruan gaudela, eta ez dago legez ezarritako eperik hirugarren hertsapen-isuna jartzeko; une honetan bertan behera utzita dago.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 12an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00073. Galdera, Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak PES-73 galdera egin du.

Hona bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

- Nori dagokio gauzatzea Gobernuaren erabakia, zeinaren bidez Memoriaren Toki izendatzen baitzen Jurramendin 1976an ultraeskuineko talde terroristei lotutako zenbait pertsonak karlismoaren urteroko ekitaldiaren aurka egindako erasoan hil ziren Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoa?

2024ko uztailaren 7an, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak Ricardo García Pellejero eta Aniano Jiménez Santosen omenezko monolitoa deklaratzeari buruzko txostena onetsi zuen. Txostena Gobernuari bidali zioten, eta, 2024ko uztailaren 24an, Gobernuak Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratzeari onetsi zuen Gobernu Erabaki bidez, non halakotzat hartzen den monolito hori.

Harrez geroztik, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua da eskudun –Memoria eta Bizikidetzako Zuzendaritza Nagusiaren bidez– abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legea garatzeko.

- Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du inauguratzea Memoriaren Toki gisa monolito hori?

Nafarroako Gobernuak inaugurazio ekitaldiak egin ditu memoriaren tokietan soilik beroriek eraikitzea zuzenean sustatu duen kasuetan. Beste toki eta kasu batzuetan aintzatespen ekitaldiak antolatu dira, toki entitateek nahiz elkarteek deituak. Hauxe da Gobernuak kasu honetan egin egin duena, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legean xedatutakoaren arabera: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak memoriaren tokia seinaleztatu bide sarean, baita monolitoa dagoen tokian ere.

- Alderdi Karlistarekin harremanetan jarri al da zehazte aldera zer material grafiko edo testu jarriko diren Memoriaren Toki horretan?

Memoriaren tokien inguruan jartzen diren material grafikoak 4/2019 Foru Aginduak arautzen ditu, abuztuaren 22koak, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariarenak, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien identitate grafikoa onesten duenak. Alderdi Karlistari prozedura hasteko ebazpenaren berri eman zitzaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

11-25/PES-00074. Galdera, Europako NG funtsekin finantzatutako ID005 jarduketa 2024ko azaroan eta abenduan murriztu izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako NG funtsekin finantzatutako ID005 jarduketa 2024ko azaroan eta abenduan murriztu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2025eko otsailaren 18ko 202501450 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Europako NG SEM funtsetan ID005 jarduketaren finantzaketa murrizteari buruzko askotariko informazioa eskatzeko (11-25/PES-00074). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Etxebizitza Departamentuak zergatik egin zuen planteamendu oker hori, kenkari fiskalak zaharberritze-programan sartuta?

Suspertze Plana aztertuz gero, 2. osagaiko 01 Inbertsioan zehaztuta daude jarduketa ildoen zenbatekoak (42. orrialdea eta hurrengoak). 3. jarduketa ildoa (Birgaitze jardueraren aldeko inguru-nea), 450 milioi euroko bolumen globala zehazten da. Nafarroako herritarrak Estatuko % 1,38 dira, eta, kopuru horrekin biderkatuta 6.210.000 euro ateratzen dira, galderan hizpide direnak.

Hasiera batean birgaitze proiektuaren globalean sartuta zegoen kenkari fiskala zenez, Etxebizitza Departamentuak jaso zuen hasiera batez; izan ere, gure kontabilitateko aurreikuspen gardenari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateari egozten ahal zaizkion funts guztiak jasotzen ditugu (ikus garden-tasunaren Excelean aurreikusitako finantzaketaren zutabea); beraz, ez da planteamendu okerra, eta, aitzitik, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Departamentuak jaso behar duen aurreikusitako finantzaketari erantzuten dio, Estatuak hasiera batean 450 milioi euroak Etxebizitza Ministerioari esleitzen baitizkio.

Ondoren, birgaitze programa globalaren barnean sartuta zegoen kenkari fiskala zerga izaerako proiektu autonomo gisa konfiguratu zen.

Beraz, litekeena da kenkari fiskalaren azpi-proiektu zehatz hori Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzea. Horrenbestez, Etxebizitza Departamentuak, Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, erabaki du Kudeaketa Plana eguneratzea (kenkariaren izaera fiskala aintzat hartuta). Une honetan zain gaude Estatuak CoFEEn kenkari fiskalerako azpi-proiektu bat esleitu artean, baita ere jarraibide zehatzak eman artean kenkari fiskal hori diruz lagunduko duten SEM funtsak kontabilizatzearen inguruan.

2.- Jarduketa horretan murriztu diren Europako funtsen 6.210.000 € horiek, galdu egin al ditu Nafarroak? Beste autonomia-erkidego batzuetara joan al dira?

Azaldu denez, funts horiek ez dira galdu; aitzitik, kontabilitatean birkokatze eta berresleitzeko zain daude, seguruenik Etxebizitzakoa ez den beste departamentu batean.

Hori dela-eta, egun Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusia harremanetan dago Etxebizitzako eta Hiri Agendako Ministerioak Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Zuzendaritza Nagusiaren Lurzoru, Informazio eta Ebaluazio Zuzendariordetza Nagusiarekin, adierazi dezaten nola eskatu behar diren kenkari fiskalaren SEM funtsak.

3.- Zaharberritze-programako jarduketa horren onuradun nafarrendako kenkari fiskalek zer dirukopuru egiten dute guztira? Nafarroako Gobernuaren funts propioekin finantzatu al dira?

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legearen bitartez hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria gaineratu zitzaion PFEZaren Foru Legearen testu bateginari (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretu biez onetsi zen FL hori). "Etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko obregatikoko kenkaria" jasotzen du xedapen gehigarri horrek, PFEZaren subjektu pasibo bidez zergadun nafarrek 2022 eta 2023 ekitaldietan aplikatzekoa.

Ondoren, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren

28ko 36/2022 Foru Legearen eta Nafarroako 2024ko Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 13ko 2/2024 Foru Legearen bidez kenkari hori aplikatzeko epea luzatu zen 2024 eta 2025 ekitaldietarako.

Xedapen horren edukia onetsi zen zergadun nafarren egoera parekatzeko Estatuko araudian xedatutakoarekin: Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearena, arautzen duena "Etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko obregatikoko kenkaria" helbide fiskala lurralde erkidean duten PFEZaren subjektu pasibo diren zergadunentzako.

Hori horrela, 2022 eta 2023 ekitaldietan aplikatzekoak izan dira PFEZaren aitortenean goian aipatutako araudian jasotako aldi baterako hiru kenkariak, energia efizientzia hobetzeko zaharberritze obratan inbertitutako zenbatekoak direla-eta:

- 1) Kenkaria berokuntza eta hozketa eskaria murrizteko obregatik.
- 2) Kenkaria energia primario ez berriztagarrien kontsumoa hobetzeko obregatik.
- 3) Kenkaria birgaitze energetikoko obregatik.

Nafar zergadunek honako zenbateko hau aplikatu dute 2022 eta 2023 ekitaldietan hiru kenkari horientzat:

Banakapena kontzeptuen arabera	2022	2023
Berokuntza eta hozketa eskaria murrizteko obrak	337.610,48	672.251,65
Energia primario ez berriztagarrien kontsumoa hobetzeko obrak	257.748,68	374.849,95
Eraikinen birgaitze energetikoko obrak	1.469.998,34	4.850.989,40
Etxebizitzen energia efizientzia hobetzeko obregatikoko kenkaria, guztira	2.065.357,50	5.898.091,01

Finantzaketari dagokionez, oraingoz kenkari fiskal hori finantzaketa berekiarekin dago finantzatuta (beste asko bezala). Horrek ez du galarazten, azaldu denez, bere garaian Nafarroako araudia aldatzea Estatukoarekin parekatze aldera, kenkari hori SEM funtsen bidez finantzatu dadila eskatzeko Estatuak egiten duenarekin bat etorritz.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00075. Galdera, Karlismoaren Museoan Jurramendiko 1976ko gertaerei emandako tratamenduari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Karlismoaren Museoan Jurramendiko 1976ko gertaerei emandako tratamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00075 galdera idatzia egin du, Karlismoaren Museoan Jurramendin 1976an izandako gertakariari egiten zaien aipamenaren ingurukoa. Hona Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriarako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Karlismoaren Museoaren erakusketa iraunkorraren gidoi museografikoa, haren kontakizunaren edukiak zehazten dituena, Nafarroako Parlamentuak eskatuta sortu zen, nola lehen proposamenean –museoaren 2010eko inauguraziokoa– hala 2017az geroztik izandako berritzean. Urte horretan, Nafarroako Parlamentuaren Kultura, Kirol eta Gazteriarako Batzordeak Nafarroako Gobernuari eskatu zion, 2017ko otsailaren 9an ziurtatutako ebazpen bidez, Karlismoaren Museoaren erakusketa iraunkorraren edukiak berrikusteko plan bat aurkez zezala, “karlismoak, dituen aldaeretako bakoitzean, II. Errepublikan, estatu-kolpe frankistan eta errepresioan, Gerra Zibilean, frankismoan eta trantsizioan izandako rola zintzo adierazten zuena, barnean hartuta Jurramendiko gertaerak, 1977ko hauteskunde demokratikoetara arte”.

Erakundeak edukiak egitean irizpide zientifikoak, objektiboak eta profesionalak erabiltzeko konpromisoa duenez, gidoi historikoa historialari bati baino gehiagori enkargatzea erabaki zen, haien profilak metodologia zorrotza agertzen bazuen historiari eta memoria historikoari dagokienez. Hori dela-eta, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egin ondoren, Museoen Zerbitzuak proposatu zuen Emilio Majuelok egin zezala gidioa bigarren erre-

publikari eta gerra zibilari dagokienez. Historia garaikidearen irakaslea da Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren zuzendaria; bestalde, frankismoaren garaiko karlismoaren atala Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia garaikidearen irakasle Francisco Javier Caspistegui eskatu zitzaion; biak dira, gainera, Nafarroako Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoko eledun.

Berritutako eta gehitutako edukiak Nafarroako Parlamentuaren Kultura, Kirol eta Gazteriarako Batzordeak baloratu zituen, baita alderdi politikoek eta elkarte memorialistek ere, eta onartu zuten egindakoa bat zetorrela Nafarroako Gobernuari eskatutakoarekin.

Egindako galderaren harira, bereziki nabarmendu behar da Francisco Javier Caspisteguiaren figura. Historia garaikideko aditu gisa (eta bereziki karlismoaren inguruko aditu gisa) dituen merezimendu profesionalak Historia garaikidearen katedradun izaten lagundu diote Nafarroako Unibertsitatean. Liburu bat idatzi zuen, *El naufragio de las ortodoxias. El carlismo, 1962-1977* izenekoa (Iruña, Eunsa, 1997), doktore-tesiaren harira, eta ekarpenik nabarmenetakoa da mugimenduak frankismoaren azken urteetan izandako bilakaeraren inguruan. Halaber, hainbat argitalpen monografiko ditu, baita maila akademiko goreneko aldizkari espezializatuetan ere, bere ibilbide profesionala bermatzen dutenak, eta Francoren diktaduran zehar –eta Jurramendiko 76ko gertaeretan, bereziki– karlismoan gertatutakoaren kontakizun historiografiko zehatza egiteko duen gaitasuna ere bai.

Hori dela-eta, Karlismoaren Museoaren erakusketa iraunkorrak ez du jasotzen Jurramendiko 76ko gertakarien “bertsio frankista”, baizik eta gertakariaren inguruko kontakizun historiografiko zehatza. Gogorazi behar da Karlismoaren Museoak aldi baterako erakusketa bat antolatu zuela 2016 eta 2017 bitarte Jurramendiren inguruan. Manuel Martorell izan zen komisarioa, eta espazio berezia jarri zen gertakari horiei buruz. Erakusketa horretako material grafiko ugari daude ikusgai egun erakusketa iraunkorrean.

Galderan adierazten diren eta 2022an eta 2023an aurkitutako eta ezagutzera emandako dokumentu berrietatik atera diren argudioek ez

dute atzean zentzuzko azterlan zientifikorik, irizpide historiografikoak baliatzen dituenik; aitzitik, komunikabideetan argitara eman dira zientifikoki eta metodologia egoki bati jarraikiz aurrez eztabai-datu gabe, eta, beraz, ez dago zertan titulartasun publikoko museo baten erakusketa iraunkorraren gidoi museografikoan sartu.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00076. Galdera, Ostalaritza eta Turismoa Elkarteari turismoa susta dezan 2020tik aitzina emandako laguntza ekonomikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Ostalaritza eta Turismoa Elkarteari turismoa susta dezan 2020tik aitzina emandako laguntza ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak

11-25/PES-00076 galdera idatzia egin du, Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteari 2020. urtetik gaur egunera arte turismoaren sustapenarekin lotutako proiektuen esparruan emandako dirulaguntzei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Turismo Zuzendaritza Nagusiak honako laguntza hauek eman dizkio Nafarroako Ostalaritza eta Turismoko Enpresaburuen Elkarteari (AEHN) (IFZ: G31096555) 2020. urtetik 2024. urtera bitarte Nafarroako Turismoaren Plan Estrategikotik eratorrita turismo elkarteek, turismo partzuergoek eta toki entitateek egindako garapen eta marketin turistikoko jarduketetarako deialdiaren bitartez, turismoaren sustapenarekin lotutako proiektuei dagokienez:

URTEA	ORDAINDUTAKO DIRULAGUNTZA	ORDAINKETAREN EBAZPENA
2020	11.740,83 €	296E/2020
2021	20.747,26 €	857E/2021
2022	3.603,03 €	582E/2022
2023	7.902,64 €	499E/2023
2024	8.108,28 €	226E/2024
GUZTIRA	52.102,04 €	

Turismo Zuzendaritza Nagusiak honako laguntza zuzen hauek eman dizkio Nafarroako Ostalaritza eta Turismoko Enpresaburuen Elkarteari (AEHN) (IFZ: G31096555) "GATURI" deritzon nekazaritzako elikagaietako eta gastronomiako marka sortzeko eta POCTEFA GATURI2 proiektua koordinatzeko eta zuzentzeko jarduketak egiteko 2020. urtetik 2024. urtera bitarte:

URTEA	ORDAINDUTAKO DIRULAGUNTZA	ORDAINKETAREN EBAZPENA
2020	26.337,93 €	271E/2020
2021	28.176,83 €	115E/2021
2022	20.000,00 €	172E/2022
2024	23.000,00 €	17E/2025
GUZTIRA	97.514,76 €	

2021. urtean 40.000,00 euroko zuzeneko laguntza eman zitzaion AEHNri. 2022. urtean, Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuko buruaren otsailaren 5eko 25E/2022 Ebazpen bidez, ordaindutako zenbatekoa zati batean itzul zedila exijitu zen. Zenbateko hori 11.823,17 euro izan ziren (11.741,15 € gehi berandutze interesak: 82,02 €).

Taulan jasota dago Organo Kudeatzaileak AEHNri 2021. urtean ordaindutako zuzeneko laguntza, aintzat hartuta berorren itzulketa partziala, 2022. urtekoa.

Horrez gainera, Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntzak jaso dituzte AEHNren barnean dauden elkarteek, aurreko horren deialdien bitartez, hala nola Hoteles Pamplona, Hoteles Tudela eta Asociación de Campings elkarteek.

AEHNk finkatutako helburuak lortu izanari dagokionez, ezin da baloraziorik egin kasu guztietan ez delako jakiten entitateak berak zer barne helburu finkatzen duen; dirulaguntzen kasuan, Turismo Zuzendaritza Nagusiak begiratzen du deialdiak osotara lortzen ote dituen markatutako helburuak, eta ez, ordea, parte hartu duten entitate onuradunek betetzen dituzten, oinarri arautzaileetan jasotako betekizunak betetzen dituztenean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo